# ttipi-ttapa

1995eko abuztuak 12 • 164. zenbakia




Karmele TOLOSA



# Bestetan gehien eramaten dena




*Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!!*

**CAJA RURAL DE NAVARRA**

tipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

GE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

GITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

**endaria:** Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
zena, Joxemanuel Irigoien.
**ninistrazioa:** Amaia Goia.
**edakzio taldea:** Pello Ape-
ea, Juainas Paul, Kristina
an, Bittori Telletxea.
**riemaileak:** Joseba Azpiroz,
eban Arozena, Juana Mari
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban
si, Txema Aldabe, Pello
egia, Txema Urroz, Patxi
andorena, Daniel Martirena,
el Maia, Josune Etxebeste,
olo Mendiburu, Joseba
abide, Alizia Olaizola, Margari
enike, Koro Irazoki, Mixel
endiain, Jacqueline, Elixabet
ria, Garbiñe Maiz, Oskar
perena, Alberto Sansiñena,
o Apezetxea, Aitor Arozena,
tina Boan. **Kolaboratzaileak:**
NE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel
unartea, Joxe Javier Etxe-
ia, Arantxa Zabala...
**rimategia:** Gertu (Oñati).
***-ttapa***k ez du bere gain har-
derrigorrez, aldizkarian adie-
ako erranen eta eritzien eran-
izunik.
**kunde Laguntzaileak:** Bera,
za, Goizueta, Areso, Baztan,
azubi, Zugarramurdi eta
ako udalak, Bortzirietako
kara Mankomunitatea,
errekako Zerbitzu Mankomu-
ea...

**ldizkari honek Nafarroako**
**bernuaren laguntza jaso du**



# Iraila arte

Urtero bezalatsu, abuztuarekin batera, iraila arte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu.

Ale honetan, ohi denez, eskualdeko herrietako besta gehienetako egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen zaretenentzat. Oporretan kanpora joan behar zaretenei, ongi pasatu eta ez galdu, iraila hasieratik berriro ere hamabosteroko zita izanen baituzue ttipi-ttaparekin.

Ongi pasa eta laister arte!

**ttipi-ttapa**



*Abuztuaren 14tik 18ra*

**Larunbata 12:**
**5etan** III. mendi-bizikleta proba. **8etan** herriko esku pilota txapelketa. Arratsaldez herriko trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira. **9etan** emakumeendako afaria.

**Astelehena 14:**
**8etan** Herriko Etxetik airatuko den altxaferuak, besten hasiera adieraziko du. Herriko txistulariak, txaranga, buruhaundi eta kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira besta egunetako lehen saioa eginez. **9,30etan** herri afaria. **12etatik 3,30etara** dantzaldia AGIRREN taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga eta Etxalarko trikitilarien eskutik animazioa.



1967ko pilota txapelketako sari banaketa. Paul Dutournier, Sarako alkatea izan zen bertan. Gibelkaldean, erdi gordeak, pilotari profesionalak izan diren Bergara eta Arribillaga ageri dira.

**Asteartea 15:**
**Andremari Eguna**
**10,30etan** argisoinuak txistulari, txaranga, buruhaundi eta kankailuekin. **11,30etan** meza nagusia. **12,30etan** herriko dantza taldeak bere saioa eskeiniko du herriko plazan. **6etan** herri kirolak (proba konbinatua) eta bertsolariak: Lizaso, Egaña, Estitxu Arozena eta Maialen Lujanbio. Gaijartzailea: Patxi Larretxea. Arratsaldez eta gauez dantzaldia AGIRREN taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga eta Etxalarko trikitilarien eskutik animazioa.

**Asteazkena 16:**
**Haurren Eguna**
**11etatik 1,30etara eta 3etatik 6etara** Motor Pista, Haizezko Gaztelua eta Zezen Mekanikoa. **2etan** Asau ttiki. **6etan** berendua eta haurrendako jokoak. Arratsaldez eta gauez dantzaldia LUHARTS TALDEAREKIN. Egun osoan Tantirumairu txaranga eta Etxalarko trikitilarien eskutik animazioa.

**Ortzeguna 17**
**Jubilatuen Eguna**
**10,30etan** argisoinuak buruhaundi eta kankailuekin. **11etan** herriko esku pilota txapelketaren finalak, infantil eta jubenil mailetan. **12,30etan** pilota partidua: Leitza eta

MADERAS
IRIGOYEN S.A.
EGURRAK:
• ZURGINDEGIRAKO
• ERAIKUNTZARAKO
• ENBALATUAK - PALET-AK
OIHAN ATERATZEAK
ZERRATEGIA
TAULAK EGITEKO TXAPA
Bulegoa: 948 / 63 71 33 • Legarrea, 14 • 31770 LESAKA
Zerrateagia: 948 / 63 52 53 • Usategietako err. 1. Km • ETXALAR

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bitiria LESAKA
☎ 627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia
✆ 635290
ETXALAR

*Abuztuaren 14tik 18ra*



Juango, Otxoteko eta Salaberriaren kontra. **2etan** jubilatuen bazkaria Larraburuan. **5etan** emakumeen pala txapelketa. **6etan** III. mus txapelketa. Arratsaldez eta gauez dantzaldia LUHARTS taldearekin. Egun osoan Tantirumairu txaranga eta Etxalarko trikitilarien eskutik animazioa.

**Ortzirala 18:**
**Asau Eguna**

**11etan** herriko pala txapelketaren finalak. Ondoren, mus eta pilota txapelketen sari banaketa eginen da. **2etan** Asau ermitako zelaian. **5etan** patinaia erakustaldia. Arratsaldez eta gauez dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Egunero bezala Tantirumairu txaranga eta Etxalarko trikitilarien eskutik animazioa.



**Herriko dantzariak 1966ko Andra Mari egunean. Behitikoan ikusten denez, aski konzentratuak ateratzen ziren, inolako hutsik egin gabe dantzatzeko**

ARGAZKIAK: Fidel CRUZ-ek utziak


**LANDABURUA**

JANARIDENDA

*Besta zoriontsuak opa ditizue denei*

Tfnoa: 635047 • ETXALAR

**ASADOR LA BASQUE**

*Besta on batzuk pasa itzazue*

Tfnoa: 635153 • ETXALAR



**ZALAIN MOTOR**

**FORD ZERBITZU OFIZIALA**

- Erakusketa eta Salmenta
- Bigarren eskuko autoetan aukera zabala eta garantia osoarekin
- Mekanika • Karrozeria • Elektrizitatea
- GRUA ZERBITZUA 24 ordutan

Zalain Auzoa • © 631157 • **BERA**

*Abuztuaren 14tik 19ra*



**Astelehena 14:**
**9etan** altxaferua Herriko Etxetik, bestei hasiera emateko. Ondoren kalejira herriko akordeolari eta IZAR txarangarekin. **12etatik 4etara** dantzaldia BASAJAUN taldearekin. Ondoren IZAR txaranga arituko da.

**Amabirjinaren Eguna**
**10etan** argisoinua herriko txistulari eta akordeolariekin. **11etan** meza nagusia. **12etan** dantzak, herriko dantzari taldeen emanaldia. Herriko akordeolari beteranoak ibiliko dira (Gregorio Ordoki, Modesto Ordoki, Salbador Madariaga, Luis Madariaga, Joakin Madariaga, Fermin Leiza, Luziano Ordoki, Gregorio Mitxelena, Miguel Mari Iparragirre). **7etan** herriko plazan asto laisterketak, ahare apostuak, oilar jokoa, basurde harrapaketa. **7etatik** aurrera IZAR txaranga herrian barna ibiliko da. Arratsaldez eta gauez musika AUKERAn taldearekin.





**Asteazkena 16**
**10etan** kalejira herriko





**ALBERGEA JATETXEA**

© 634179
ARANTZA

**TECNIPE**

Tfnoa: (943) 399946 • Faxa: (943) 390748
Euskadi Etorb. 57 • PASAI SAN PEDRO
Tfnoa: (948) 634161
Salbatore karrika, z/g • ARANTZA

- Etxe aitzinaldeko harri eta adreiluen tratamendua.
- Garbiketa osoa eta ura sartzearen kontrako tratamendua
- Etxe aintzinalde eta barnekaldeen margotzea

**BERABI Agentzia, S.L.**

**BERABI Tailerrak**

- SALMENTA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- KONPONKETAK OROHAR

Zalain industrialdea • © 631445 **BERA**

*winterthur*
*Sociedad Suiza de Seguros*

*Zugandik gero eta hurbilago*

Inmobiliaria • Aseguroak

© 630601 • Faxa: 630805 • Legia 1, **BERA**

*Abuztuaren 14tik 19ra*



**Haurrek ere txoko berezia izaten dute bestetan era, seguraski, hobekien pasatzen dutenak dira. Horretarako izanen dute Haurren Eguneko haizezko gazteluak, tren mekanikoa... laz inauguratutako frontoia zenbait ikuskizunen lekua izanen da. Trikitilari eta panderojoleek musika doinuak karrikaz karrika zabalduko dituzte.**

Argazkia: OSKAR

txistulari eta akordeolariekin. **12etan** pilota partiduak: Banakakoa; Ander Agesta Jabier Mitxelenaren kontra. Binaka; Castro eta Ordoki, Mikelperizena eta Iparragirren kontra. **1etan** herriko trikitilari gazteen emanaldia plazan (Olatz, Leire, Itsaso, Leire, Natalia, Gurutze, Aitziber, Joseba, Jaione Estitxu). **7etan** Nafarroako arpana txapelketa (1. maila, emakumeak eta 16 urtetik behitikoak). Arratsaldez etya gauez musika HARITZA taldearekin.

**Ortzeguna 17: Haurren Eguna**

**10etan** argisoinua txistulari eta akordeolariekin. **12etan** haur eta gazteendako jokoak plazan eta frontoian: Haizezko gazteluak, zezen mekanikoa, apar besta, lera zakurrak. **1etan** herriko akordeolarien emanaldia plazan (Gaizka, Marixe, Estitxu). **4etan** plater tiraketa Ehiztari Elkarteak antolatua. **7etan** jokoak plazan. Arratsaldez eta gauez dantzaldia URRATS taldearekin.

**Ortzirala 18**

**10etan** argisoinua txistulari eta akordeolariekin. **12etan** herriko pilota txapelketako finalak (lau partidu) Ekaitza elkarteak antolatua. **1etan** bertsolariak frontoian: Peñagarikano eta Lizaso. IZAR txarangak giroa alaituko du bere musikarekin. **2etan** herri bazkaria eskoletan. Bertan bertsolariak eta txaranga izanen dira. **7,30etan** bertsolariak plazan. Arratsean IZAR txarangarekin dantzaldia plazan. **12etan** musika GOZATEGI taldearekin. **3etatik** aintzinera IZAR txaranga arituko da.

**Larunbata 19**

**Gaueko 10etatik goizaldera arte** musika plazan herriko gazte eta ostatuek antolaturik.



Pabloenea Jatetxea
Goiko karrika • ✆ 634077
ARANTZA

BURLADA JATETXEA
Goiko karrika
✆ 634027 • ARANTZA



PRIMITIVO OSTATUA
*Besta onak pasa!*
Goiko karrika • Tfnoa: 63 40 52 • **ARANTZA**

OSINA JANARIDENDA
*Besta ederrak pasa itzazue!!*
Tfnoa: 63 41 88 • **ARANTZA**

ZUZAÑENEA OSTATUA
Goiko karrika • Tfnoa: 63 40 16 • **ARANTZA**

SAROBE
okindegia
**SANDERS Pentsuak**
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

*Agorrilaren 14tik 19ra*






Makilari eta dantzariak jotasu arituko dira dantzan Amabirgin egunean. Ikusmina segurtatua dago.
Gazteek, argazkiak lasai ederrean eserita ageri badira ere, martxa polita ezarriko dute aurtengo bestetan

**Astelehena 14:**
**12etan** besta hasierako suziria eta ezkil joaldia. **4etan** heur jokoak: Gaztelu haizatuak, ohe elastikoak, magia... **7etan** txokolatada eta paztiza txapelketa. **11etan** piperrada plazan, txarangaz alaiturik. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia XITOAK taldearekin.

**Asteartea 15:**
**11,30etan** meza nagusia. Ondotik Herriko Etxeak aperitifa edo hameketakoa eskainiko du. **12etan** makilariak. Ondotik Irungo dantzariak. **5etan** pilota partiduak. **7etan** berriz makilariak eta dantzariak. **12etan** reggae kontzertua KING MAFRUNDI taldearekin. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia XITOAK taldearekin.

**Asteazkena 16:**
**10etan** plater tiraketa. **12etan** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna: basurdeak, zakurrak aretzeak, ahare eta oilar jokoak. **4,30etan** ahate eta giltza jokoak Behitiko Karrikan. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia SAKASTA taldearekin.

**Ortzeguna 17:**
**10etan** eskea, HERBURU txarangarekin herri guzian barna. **2etan** bazkaria eskean ibili direnentzat. **4,30etan** KAXIANOk bere kantu ederrak eskeiniko dizkigu. **6etan** kale antzerkia. **8etan** mozorro jantzien txapelketa (hiru sari eder banatuko dira). **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia SUSTRAIA taldearekin.

**Ortzilarea 18:**
**11etan** txarangak eta gaiteroek herriko karrikak animatukop dituzte. **2,30etan** zikiro jatea lezean. **7etan** larrain dantza eta Mutxikoak plazan. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia SUSTRAIA

ALTZATENEA JATETXEA
Besta ederrak pasa!!
Tfnoa: 59 91 87 - ZUGARRAMURDI

F.J. ETXABE Tailerrak
Autoen konponketa
Besta on batzuk pasa!!!
© 599038 • ZUGARRAMURDI

ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9,
☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN
- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoa
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

ANSALAS OSTATUA

HARATEGIA
JANARIDENDA
Besta ederrak pasa
© 59 90 82
ZUGARRAMURDI

*Agorrilaren 14tik 18ra*







Ahate eta giltza jokoak asteazkenean ospatuko dira Behitiko Karrikan. Ohitura zaharrak mantenduko dira, berrikuntzak ahantzi gabe (reggae kontzertua lekuko).

ARGAZKIAK: MARGARI eta KOROK utziak

taldearekin, dantza eta saltoko gustura ibiltzeko.

**Larunbata 19:**
**Arratsaldeko 5etan** euskal jokoak: Aizkolariak, harrijasotzaileak, arpanlariak, orga eta lasto altzatzaileak. Kirolarien ondotik bertsolariak arituko dira. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia URRATS taldearekin.




**ARMUA Jatetxea**
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - **URDAZUBI**

**LANCHAS**
- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305

**ttipi-ttapa**
*6.000 harpidedun*
*20.000 irakurle*

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

SORGINXULO
**JATETXEA**
Olasur Auzoa
✆ 599231
ZUGARRAMURDI

*Abuztuaren 14tik 19ra*

**Astelehena 14:**
**8etan** suziriak eta Riau-riau. **9etan** Baztan zopak (Txartelak Urdazubi, Elizondo, Erratzu eta Amaiurren salgai). **1etatik 5etara** gaupasa AKELARRE taldearekin. **6etan** zinger jatea Monumentoan.

**Asteartea 15:**
**Amabirjin Egune**
**11etan** Meza Nagusia. Ondoren III. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdiko Gasna Lehiaketa. **12etan** cross laisterketa. **12,30etan** hameketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. **4,30etan** artzai zakurren desfilea. **5etan** XX. Artzain-zakur txapelketa (Xanparti omenaldia). Akitzerakoan, gasna lehiaketaren sarien banaketa eta hauen subasta eginen da. **7etan** sokatira: Zuraide, Beti Gazte (Iesakarrak) eta Amaiur. Toki berean Baztan eta Amaiurko haur dantzarien saioa. **8etatik 10etara** dantzaldia ALMEN taldearekin. **10etan** mutil-dantzak eta Larraindantza gaiteroekin. **11etan** sokamuturra. **12etatik 3,30etara** dantzaldia ALMEN taldearekin.



Asto karreran bikain aritu ondotik, honelako sariak merezi zituzten herriko 'jockey' gazte hauek. Protokolo arduradunak nahiko lan zuen domina ongi jartzen...

**Asteazkena 16:**
**Haurren Egune**
**12,30etan** haurren II. pilota txapelketaren finala. **5etan** haurrentzat ikuskizunak (Nafarroako Gobernua eta Baztango udalaren laguntzarekin). Ondoren haur jokoak eta 'txokolatada'. **8etatik 10etara** dantzaldia IÑAZKI taldearekin. **10etan** mutil-dantzak. **10,30etan** herri afaria. **11etan** sokamuturra. **12etatik 3,30etara** dantzaldia IÑAZKI taldearekin.

**Ortzileria 18**
**Herritarren Egune**
**2etan** zikiro jatea Joxe Anjel eta Martikorenarekin. **8etatik 10etara** dantzaldia DRINDOTS tal-

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ **Zurich Aseguruak**
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ **Lan aholkularitza**
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ **Aholkularitza fiskala**
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ **Inmobiliaria**
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ **Gestoria**
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

ERRATZU
OKINDEGIA
*zure eguneroko ogia*
✆ 453168 - ERRATZU
✆ 453403 - ARIZKUN

AROZ BERRI
SAME
POTENTZIA ETA TEKNOLOGIA
TRAKTOREAK
EUROPAN SARITUENAK, ORAIN HEMEN ERE
Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021 • IRURITA

*Abuztuaren 14tik 19ra*



dearekin. **10etan** mutil-dantzak. **11etan** soka-muturra. **12etatik 3etara** dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

**Larunbata 19:**
**4,30etan** Baztango II. Mountain Bike bilgura (Nafarroako Gobernua eta Baztango udalaren laguntzarekin). **8etan** kantaldia: POTTOKA eta BALERDI-BALERDI. **10etan** mutil-dantak. **11etan** sokamuturra. **12etatik aitzinera** gaupasa DRINDOTS taldearekin. **6etan** zinger-jatea Monumentoan eta besten bukaera.





**Herri kirolak ikusmin haundia sortu du beti Amaiurko bestetan. Goitian herriko sokatira taldea ageri da, aurten ere lanean arituko dena. Ezkerreko argazkian, aizkolariak eta asto laisterketa. Honelakorik ez da izanen, bainan bai mendi bizikleta proba.**

ARGAZKIAK: Ixabel ELIZALDEK UTZIAK


**AMAIUR**

ALTZARIAK

Doneztebeko sarreran • Tfnoa: 45 04 00

*Zure etxeko sukalde eta bainuak*
*Profesionalen eskutan jarri*
*Etorri eta konparatu kalitatea eta prezioa*

**BESTAK UMORE ONEAN PASA**



*Abuztuaren 14tik 19ra*

**Astelehena 14:**
**6etan** txupinazoa. Ondotik Iparragirre taldeko akordeolarien karrikapasa. **8etan** meza. Ondotik, akordeoi kontzertua. **9etan** Baztan zopak. Dantzaldia JOSE ANGELen eskutik.

**Asteartea 15:**
**Amabirgin Eguna**
**10etan** argisoinua gaiteroekin. **11etan** Meza Nagusia. Ondotik Baztango dantzariak. **5etan** pala partiduak. Herriko txapelketaren erdifinal eta finalak. **7etan** BERRIOZAR txaranga. **8,30etan** su-artifizialak. Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Asteazkena 16:**
**Gazteen Eguna**
**10etan** diana BERRIOZAR Txarangarekin. **2etan** gazteen bazkaria. Arratsalde eta gauez dantzaldia.

**Ortzeguna 17:**
**Hurren Eguna**
**10etan** argisoinua Doneztebeko txistulariekin. **4etan** zezen mekanikoa, haizezko gazte-





labadabaduuu... Hori da hori 'troglodita' koadrila. Oronoz-Mugairiko bestak aspaldikoak badira ere, goitiko argazkia iazkoa da, ez pentsa... Eskuinean, berriz, herriko dantzarien emanaldia

ARGAZKIAK: ALTXU eta AIZPURUk utiak


MIREN
ileapaindegia
Ordua eska ezazu
MIren Gortari Sein
✆ 592310
ORONOZ-MUGAIRI

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

GAS ASKAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak
Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

1995ko Abuztuak 10 / 5. zkia

# Hiruhilabeteko Txokoa

*Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordeen Argitalpena*

**Argitaratzailea**: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)
**Montajea , Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa

# *Gure txaloa merezi dute!*



Laburmetrai lehiaketara euskaraz egindako iraupen laburreko zenbait bideo aurkeztu ziren.

Aspalditik esan ohi zaigu euskararen inguruan gabiltzanoi negar egiteko ohitura haundia dugula, alderdi txarrak nabarmentzen saiatzen garela beti, ezkorregiak garela , alegia.

Euskararen egoera larria dela ezin dugu izkutatu, eta ez dugu izkutatu nahi gainera. Horrexegatik honen aurreko gehigarrian, martxoko alean, guk ikusten ditugun zenbait arazo azaltzen genituen.

Hala ere, eta gauza onak ere badirela argi dagoelako, denak ez baina azken hilabeteotako zenbait ekimen aipatu eta txalotu nahi ditugu, euskararen normalizazioaren aldtik oso onuragarriak direlako:

## Laburmetrai lehiaketa

Maiatzean antolatu zen eta bertan euskaraz egindako iraupen laburreko zenbait bideo aurkeztu zen. Zinearen munduan zoritxarrez erdara ia erabat nagusi bada ere, gazte talde honek erakutsi du bertan egindako bideo-produkzioan euskarak baduela tokia.

## Merkatarientzat euskara ikastaroa

Gehigarri honetan bertan euskaltegikoek honen berri ematen digute, bainan duen garrantziagatik aipamen berezia merezi duela uste dugu, eta hemendik txalotu nahi dugu guztion jarrera.

## Tresna eta ohitura zaharren erakusketa

Kultur Taldeak lan eredugarria eta txalogarria egin du erakusketa hau prestatuz. Bertako bizimodua eta kultura nolakoa izan den ikasten laguntzeaz gainera, arlo honetan ere euskarak eta bertako euskalkiak duen aberastasuna erakutsi digute.

Gehiago ere izanen dira txalogarri, baina ahalegina, berrikuntza eta originaltasunagatik hiru ekimen hauek aipamena merezi zutela uste dugu, eta parte hartu duten guzitak horrela jarraitzera animatu nahi ditugu.

# *Euskaldunak, bigarren mailako nafarrak*

***Aurreko hilabeteotan, euskaldunak bigarren mailako nafarrak garela azaltzen duen kanpaina burutu dugu. Horretarako, gure salaketaren punturik garrantzitsuenak kartel eta irrati-kuñen bidez adierazi genituen. Modu berean, prentsara ere hainbat artikulu bidali genituen. Gizartearen erantzuna biltzeko, elkarte, ikastetxe eta erakunde hauen sinadurak bildu genituen:***




LEITZALDEA

Aizan Kirol Elkartea
Amnistiaren Aldeko Batzordeak
Aresoko E.P.ko Guraso Elkartea
Aresoko Herritarren Elkartea
Aresoko Kultur Taldea
Aresoko Parrokia
Aresoko Sokatira Taldea
Aurrera Kirol Taldea
Aurrera Futbol Taldea
Bake Epaitegia
ELA
Elkarri
Eskualdeko Eskola Publikoa
Euskal Dantzari Taldea
Euskal Kultur Taldea
Euskara Zerbitzua
Eusko Alkartasuna
G.I.A. (Aresoarrak)
Goizuetako Udala
Goizuetako E.P.ko Guraso Elkartea
Gurutze Mendi S.D.C.R.
Herri Batasuna
IKA
LAB
Larrea Elkartea
Leitza-Goizueta-Arano eta Aresoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua
Leitzako Haurtzaindegia
Leitzako Lanbide Eskolako Klaustroa
Leitzako Osasun Zentroa
Leitzako Udala
Mendigorria Elkartea
Nekazal Ganbara
Okile Ezinduen Elkartea
Okile Tailerreko partaideak
Orain E.G.
Pake-toki Elkartea
Umore Ona Elkartea

# *Euskara merkatal mundura*



Azkenean, ikaragarri gustora aritu dira orain arte egunero erdaraz egiten dituzten gauzak euskaraz nola egiten diren ikasten.

Gogoratzen al duzue *«euskara merkatal mundura»* izeneko kanpaina? Kanpaina honek fase ezberdinak zituen helburu nagusi baten inguruan, hau da, establezimendu guztietan euskararen presentzia gehitzea.

Udala, euskara zerbitzua, euskara batzordea eta euskaltegiaren artean antolatutako kanpaina honen barrenean hiru astetako ikastaro motza antolatzea pentsatu zen.

Azkenean hamar lagun animatu ziren. Ez da gutxi!. Aditzekoak lehenbiziko egunean aipatu zituzten kontuak! Batek, *"Adin honetan ni ez nago ikasten hasteko"*, besteak, *"Neure burua ez dago honetarako"*, beste batek berriz, *"Ni eskolan beti txarra izan naiz"*.

Betikoa...Jendeak euskaltegian aritzea eskolan aritzea dela uste du, eta gehienetan geure burua gutxiegi baloratzen dugu.

Gero zer eta... denak ikaragarri gustora: Klaseak errazak, atseginak eta giroa bikaina, ez dago aritutakoei galdetzea besterik!

Zer ikasi duten? Ba, askotan oso sinpleak diren gauzak, baina beti erdaraz egin izan ditugunak, oharrak, datak, zenbakiak, txekeak egiten, euskaraz idazten, akatsak zuzentzen, eta batez ere, dakitena baloratzen eta azken finean hizkuntza zuzen erabiltzen. Hogei orduko ikastaro batetarako, nahikoa!

Bukatzeko, jakina; Afaria.

Ea heldu den urtean segitzen dugun!!

*Leitzako Euskaltegia*

# *ARESO:*

## *herri txikietan bizi haundia dago*

Azkeneko urte hauetan Areson zenbait elkarte mugitzen ari dira herriari bizi pixka bat eman nahian. Inguruko herriengandik nolabaiteko independentzia lortzea da beraien helmuga, hortarako Guraso Elkartekoek bere gazte eta umeentzeko ekintza asko antolatu dituzte ordurarte hauek beste herrietara joan behar zuten denbora librea gustora pasatzeko.

Ekintza hauek aurrera ateratzeko lokal bat behar dute, momentuz udaletxean uko egin diete, baina dirudienez gurasoak gogor jarraitu behar dute lortu arte. Bertan liburutegi bat jarri nahi dute, eta ordenagailu gela bat ere bai. Entziklopedia bat eta 2 ordenagailu badituzte eta.

Elkarte honetako kideek dantza eta pilota ikastaroak antolatu dituzte urte horretarako eta herrian ospatzen diren jaietan parte hartzen dute. Oso ikusgarria izaten da bertakoentzat beren seme-alabek parte hartzen dutela ikustea. Amek josi dizkiete dantzako jantziak eta pixkanaka lortzen ari diren tresnekin batera laster dantza talde bat osatzeko behar dituztenak izanen dituzte.

Betidanik egon den zaletasuna mantendu nahian, Guraso Elkarteak bi gazte jarri ditu pilota irakasle modura, Mikel eta Joxe. Hauek umeak prestatzen dihardute eta inguruko herrietakoekin batera partiduak jokatzen dituzte. Behar duten materiala elkarteak eskaintzen die.

Aresoko gazteek, beraien aldetik, sokatira taldea sortu dute. Hasieran 9 mutilek parte hartzen zuten, gero Gorriti, Leitza eta Elduaiendik ere etorri ziren. Nuarbeko Josu Etxezarreta dute entrenatzaile Asko sufritu behar dela esaten dute, astean lau entrenamendu saio egiten dituzte; hiru sokarekin eta bestea ariketa fisikoak eginez. Alderdi gogorrena hori dela diote, bainan duten ikusioagatik eta txapelketetan sortzen den giroa gustokoa dutelako segitzen dute. Orain, beraien desafioa beste urte pare batez goma gainean segitzea da, eta maila hobea lortzen dutenean lur gainean hasi nahi dute. Nafarroako txapelketetan bigarren eta hirugarren postuetan ibili dira. Ez da gutxi daramaten denbora gutxirako.

Azken 3 urteotan Kultur Eguna ere ospatzen da herriko elkarte guzien partehartzearekin.

Hauetaz gain, proiektu gehiago ere badaude prestatuak; ikastaroak, solasaldiak, mindegiak...

*Elisa Belaunzaran*

# Goizuetako tronzalariak

Xalba Indakoetxea



Gaur egun, bakarrik kirol erakusketa modura ikusten da norbait trontzan. Argazkian Arantzako trontzalariak.

Arpana edo trontzaren sarrera Euskal Herrian ez da aspaldiko gauza izan, aurreko mendean ezagutzen zen lurralde hauetan.

Iratiko basoan, mendi batzuk botatzeko hartuak zituen italiar batek (Aldo Moranti) ekarri omen zuen tresna hau 1860ean aurrerapen haundia suposatzen zuelako aizkorarekin konparatuz. Hala ere, dena ez zen aurrerapena. Hau erabiltzko bi pertsona ezinbestekoak ziren eta gainera zuhaitza lurraren ondotik moztu behar zenean, ia ezinezkoa zen arpanaren bidez egitea. Gainera, bertako basomutilak ez zuten tresna atzerritar hau onartzen eta 70 bat urtetan ez zen asko zabaldu.

Nafarroan sartu zen lehendabizi eta lurralde honetan hasi dira lehen apostu eta desafioak egiten. Hala ere arrakasta txikia izan zuen eta gerrate zibilaren aurreko urteetarako ia desagerturik zegoen kirol mota hau.

Gerra ondoren Arano, Goizueta, Gorriti, Ezkurra... bezalako herriek trontzalariek ekartzen hasten dira herriko festetara erakustaldiak egiteko.

Trontzan aritzen zirenetatik laster nabarmenduko ziren bi goizuetarrak: Txakurtxo baserriko Juantxo eta Jose Antonio Perurena anaiak.

Hauek 1942 eta 1945 urteen artean egindako saio gehienetan txapeldun suertatu ziren.

Beste bikote bat ere bazen oso ongi aritzen zena trontzan Mariano eta Nikolas Lasarte, Urnietako Altzibar baserriko anaiak.

Eta honela, napar eta gipuzkoarren arteko lehen trotza apostua egin zen bakoitzak mila duro jokatuz.

Urnietako anaiek zekor bat hil omen zuten eta hau janaz desafiorako prestatzen aritu omen ziren besterik egin gabe. Txakurtxotarrak, berriz, basoan segitu zuten lanean apostu eguna iritsi zen arte.

Desafioa Tolosako zezen plazan burutu zuten 1942ko abenduaren 20an, eta gure herritik ere joan zen jendea hau ikustera.

Goizuetarrak plazara atera zirenean Urnietarrak burla egin omen zieten, hauek mutil mardul eta ederrak izaki, eta Txakurtxokoak berriz, bat mutil arrunta eta bestea berriz, nahiko motza.

Burutu beharreko lana 54 hatzbeteko (hatzbete bakoitzak 23 milimetro neurtzen ditu) enbor bati 12 korte egitea zen.

Hau da bikote bakoitzak erabili zuen denbora lana burutzeko:

| Kortea | Goizueta | Urnieta |
|---|---|---|
| 1 | 0'33" | 0'31" |
| 2 | 1'07" | 1'07" |
| 3 | 1'47" | 1'47" |
| 4 | 2'49" | 2'51" |
| 5 | 3'13" | 3'16" |
| 6 | 4'00" | 4'05" |
| 7 | 4'47" | 4'55" |
| 8 | 5'34" | 5'40" |
| 9 | 6'21" | 6'26" |
| 10 | 7'09" | 7'18" |
| 11 | 7'55" | 8'01" |
| 12 | 8'38" | 8'47" |

Txakurtxokoek egurra eman zien Altzibarrekoiei eta hemen bukatu ziren gipuzkoarren harrokeriak.

Garai hartan jendearen ikusmina sortu zuten apostu bat baino gehiago izan zen baina hala ere, kirol honek ez du inoiz beste edozeinek izan duen arrakasta lortu.

*Abuztuaren 14tik 18ra*




luak eta merendua. Arratsaldez eta gauez JOXE AnGEL.

**Ortzirala 18:**
**Herriaren Eguna**
**10etan** argisoinua Doneztebeko txistulariekin. **11etan** mus txapelketa. **2etan** herri bazkaria frontoian. Arratsalde eta gauez RAMONTXO.

**Larunbata 19:**
Arrats parteaz auzo-afariak ospatuko dira.






**Gazteek ederki pasatzen dute bazkarian, eta bazkalondoanz er erranik ez. 1992ko pilota txapelketako finalistak ageri dira ezker aldeko argazkian. Musikoa ona denean, soinua jotzearekjn batera dantzarako abilidadea izaten du...**





**SOULE**

**GURUTZE eta HILARRIAK**

✆ 45 30 38 ARIZKUN • ✆ 12 35 72 IRUÑA

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**OFERTAK:**

*Soinak .............. 3.000tik aitzinera*
*Konjuntoak ...... 7.800tik aitzinera*
*Blusak .............. 1.450tik aitzinera*

***Aukera zabala arropa formal eta informaletan***

QSS
FOTOS EN 1 HORA

**ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU**

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25

foto mena

*Abuztuaren 14tik 18ra*

**Astelehena 14:**
**7etan** Zubietako pilota txapelketako finalerdiko partiduak. **9,30etan** txistulariak. **12etan** arbola altxatzea. **12,30etatik goizaldera arte** dantzaldia URRATS taldearekin.

**Asteartea 15**
**Amabirgin Eguna**
**11etan** Meza Nagusia. Ondoren, joaldunak. **12etan** bertsolariak: Unai Iturriaga eta Jokin Sorozabal. **1etan** aizkolariak: Jaunarena Patxi Mindegiaren aurka. **6etan** Otsagiko dantzariak. **8etatik 10etara** JOXE AGUSTIN eta AINARA trikitilariak. **12etatik goizaldera arte** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.

**Asteazkena 16:**
**12etan** mus txapelketa. **6,30etan** futbito partidua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ALMEN taldearekin.

**Ortzeguna 17:**
**12etan** Zubietako pilota txapelketako partidoak: Finala eta hirugarren eta





**Garai batean bai ederki herriko dantzari taldearekin... Eskutik hartu eta saltoka eta dantzaka hor aritzen ziren. Aurten, ordea, kanpotik etorri beharko dira dantza taldeak.**


**ERRANDONEA OSTATUA**
*Besta zoriontsuak pasa itzazue!*
Tfnoa: 45 02 16 • **ZUBIETA**

**ORMAETXEA**
**OKINDEGI-OSTATUA**
*Besta zoriontsuak pasa!*
Tfnoa: 45 01 69 • **ZUBIETA**



Moble berriak erakusketan
TELLETXEA MOBLEAK
**Moble modelo berriak**
**Burdin eta zura konbinazioak**
Rosa Seminario z/g • ✆ 45 02 58 • **DONEZTEBE**

*Abuztuaren 14tik 18ra*



laugarren posturako partidua. **6etan** haur jokoak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia REKALDE ANAIAK taldearekin.

**Ortzirala 18:**
**4,30etan** plater tiraketa txapelketa herrikoentzat. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ALMEN taldearekin. Gaueko **10etan** Askaingo dantzariak.






**Pilota txapelketako edizio berri baten azken partiduak Amabirgin fiestetan jokatuko dira aurten ere, aspaldiko urteetan bezalatsu.**

**Dantzariak, herriko plazan dantzatzeaz gain, auzoz auzo ere ibiltzen ziren**

ARGAZKIAK: Iñaki ETXEBERRIAk utziak


**SANTAMARIA**
**Jatetxea**
**Espezialitatea euskal sukaldaritzan**
**Eguneko menua eta karta**
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**AMEZTIA**
**Jatetxea - Hostala**
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • **DONEZTEBE**

**ETXANDI TXOKO erretegia**
**Bazkari, afari eta gosariak**
**ITUREN**
**Tfnoa: 45 04 91**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**
**DONEZTEBEn**
**MALDAERREKA, S.L.**
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



**OTORDUAK • LOGELAK**
✆ 948-451771

*Abuztuaren 14tik 18ra*

**Astelehena 14:**
**7,30etan** altxaferuak. Ondotik, Iturengo txistulariak auzoz-auzo. Gauez dantzaldia.

**Asteartea 15:**
**Amabirgin Eguna**
**10etan** txistulariak. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondoren hameketakoa. **Arratsaldean** antzerkia. Arratsaldez eta gauez antzaldia NAHIKO taldearekin. Deskantsoan Erramun MARTIKORENAren kantaldia.

**Asteazkena 16:**
**Goizean** argisoinua. **1etan** aizkora apustua: Mindegia eta Larretxea, Olasagasti eta Nazabalen kontra. **Arratsaldeko 2etan** pilota partiduak, afizionatuak eta haurrak. Arratsaldez eta gauez dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

**Ortzeguna 17:**
**Goizean** argisoinua. **10etan** mus txapelketa azkarra. **Goiz eta arratsaldez** haurrendako jokoak, Pista Libre (karts, gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa...). **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia NAHIKO taldearekin.

**Ortzirala 18:**
**Goizean** dianak. **2etan** zikiro jatea, Jon Sarasua eat Andoni Egaña bertsolariekin. Ondoren REKALDE ANAIAK trikitilariak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia REKALDE ANAIAK taldearekin.





**Herriko neska mutiko gazteak orain hamabortz bat urte ateratako argazkian ageri dira gotiko argazkian. Eskuinean, herriko neskatxak 1977ko Amabirgin egunean**

ARGAZKIAK: Maribi EULATEk utziak


JATETXEA
© 580297
Pedro Axular
ELIZONDO
**Santxotena**

**IBARROLA**
**HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA**
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • **DONEZTEBE**



*© 631076 • BERA*

BELARRA Kafetegia
*Plater Konbinatuak*
Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • **DONEZTEBE**

GRUPO ZURICH
**ASEGURO OROKORRAK**
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

**BEREAU**
Jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
**Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA**

**ZIZKA OSTATUA**
**Martxa eta mozkor saltsa**
Altzate 28 • **BERA**

# EZKURRAKO PESTAK

*Abuztuaren 14tik 18ra*

**Astelehena 14:**
**Arratsaldeko 8etan** txupinazoa. Ondoren, afaria Barranka jatetxean, Elorza anaiak trikitilarien animazioarekin.

**Asteartea 15**
**Amabirgin Eguna**
**11,30etan** Meza Nagusia. **1etan** aizkol apostua: Mindegia Olasagastiren kontra. **6etan** dantzariak. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

**Asteazkena 16**
**Umeen Eguna**
Egun osoan zeharhaurrentzako jokoak izanen dira frontoian. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

**Osteguna 17**
**6etan** afizionatu mailako pilota partidua. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

**Ortzirala 18**
**12,,30etan** bertsolariak. **2etan** herri bazkaria plazan, trikitixa eta bertsolariekin. **6etan** aizkol apostua: Etxeberria Jaunarenaren kontra. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

**Larunbata 19:**
**10etan** plater tiraketa. **12etan** futbito partidua: Betelu-Ezkurra. **5etan** mus txapelketa. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.

**Igandea 20:**
**12etan** afizionatu mailako pilota partidua. **8etatik 10etara eta 12etatik 3etara** dantzaldia ATSEGIN taldearekin.





**Duela zenbait urteko argazkiak dira hauek, artean frontoia estali gabe zegoenean. Aurten ez da izanen euriaren beldurrik Ezkurra aldean.**

ARGAZKIAK: Reyes GOÑIk utziak


**BARRANKA JATETXEA**

*Pesta zoriontsuak pasa itzazue*

Tfnoa: 61 50 80 • EZKURRA

CAPDEQUI
MICRO BUS 17 P
CAP

**24 ORDUKO BUS ZERBITZUA**

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN



ZIALDO OSTATUA

LESAKA

**PIKABEA** *pinturak*

Lehen Molinero izandakoak

***Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu***

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

**EROSLE**

LESAKA

**Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena**

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ✆ 637264

*Abuztuaren 12tik 19ra*



**Larunbata 12:**
**Umeen Eguna**
**11etan** umeentzako jokoak. Toka eta xake txapelketa. **5,30etan** umeentzako jokoak. **7etan** txokolatada. **8,30etan** BITTOR AIAPE abeslariaren emanaldia.

**Igandea 13:**
**Umeen Eguna**
**9etan** entzierro txikia. Ondoren zezenak umeentzat. **11etan** herriko meza, haurrak bertako jantziekin joanen direlarik. **12etan** pilota partiduak. **5,30etan** zezenak umeentzat. Ondoren udalak umeei ematen dien berendua. **7etan** Kontzertu erraldoia eskoletako pilota plazan: Anje Duhalde, Tapia eta Leturia Band, Exkixu, Sutagar eta Def Con Dos taldeekin. Antolatzaileak: Euskaldunon Egunkaria eta Gazte Asanblada. Laguntzailea: Udala.

Goizuetako Udalak
festa onak opa dizkizue
Goizuetar eta bisitari guziei

**HUIZI JATETXEA**
**Ongi pasa festetan!**
Kale Nagusia, Tfnoa: 51 40 39 - **GOIZUETA**

**URRUTINEA TABERNA**
*Festa on batzuk opa dizkizuegu*

**GOIZ ARGI TABERNA**
***Festa zoriontsuak opa dizkizuegu***
Tfnoa: 51 40 61 - **GOIZUETA**

**Astelehena 14:**
**Amabirgin bezpera**
**12etan** Udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emango dien itxaferoa botako da. Ondoren txistulari banda, erraldoi eta buruhaundien konpartsak herriko kaleen barrena ibiliko dira. **8,30etan** umore Ona peñaren irteera, beren kalejirekin jaiak alaituko dizkigutelarik. **12etan** gaupasa ARKAITZ taldearekin eta Umore Ona peñaren txarangarekin.



Gaur egun adina bazkide ez izan arren, jende multzo polita biltzen zuen Umore Ona peñak lehen ere, ondoko orraildean orain dela 26 urteko argazki horretan ikusten denez.
Lerro hauen gainkaldean berriz, orain dela 34 urteko Umore Ona txaranga eta bazkide batzuk herriko haurrez inguraturik

**Asteazkena 15:**
**Amabirginaren Eguna**
**7etan** Tolosako dultzaineroekin diana. **8etan** entzierroa. **10,30etan** Meza Nagusia, segidan, Amabirginaren ohiko prozesioa. **12etan** Umore Ona dantza taldearen emanaldia. **12,30etan** bonba japonesak umeentzako opariekin. **1etan** eskuz binakako partidua: Artola eta Apezetxea I., Arbizu eta Mariezkurrena I.en kontra. **6etan** Udaletxeko plazan zezenak. **8etan** herri kirol jaialdia plazan. Aurrena, bi atleten arteko aizkol-proba konbinatua. Ondoren, Migeltxo Saralegik 200 eta 250 kiloko harri errektangularrak jasoko ditu. Baita 100 kiloko esferikoa ere. **12etan** dantzaldia AISTRIKA taldearekin.

**Asteazkena 16**
**12etan** eskuz binakako bi partidu. Lehenbizikoa gaztetxoen artekoa. Ondoren, Olaizola I-Goñi, Haritz eta Galartzaren kontra. **6etan** zezenak. **8etan** bertso saioa plazan Jon Sarasua, Angel Mari Peñagarikano, Manolo Arozena eta Jokin Sorozabalekin. Gaijartzaileak, Hernaniko bertso eskolakoak. **12etan** dantzaldia ARKAITZ taldearekin. Ordu berean Gazte Asanbladaren lokalean (Tifanitxon) rock kontzertua LARRUA TRUK eta IKARA taldeekin.

**Osteguna 17:**
**7etan** diana. **8etan** entzierroa. **12etan** eskuz binakako bi partidu. Lehendabizikoa gaztetxoen artean. Ondoren, Berraondo eta Apeztegia, Apezetxea II. eta Almandozen kontra. **6etan** zezenak. **8etan** plazan 'Nagore anai-arrebak' joteroen emanaldia. **12etan** dantzaldia EGAN taldearekin.

**Ostirala 18**
**Ezkondu eta Umore Ona peñaren Eguna**
**12etan** gazteen arteko eskuz binakako pilota partidua. Ondoren, aspaldiko ohitura jarraituz, Goizueta eta Aranoko ordezkarien arteko pilota partidua. **3etan** Umore Ona taldekoen bazkaria. **5ak aldera** peña bere txarangarekin kalez kale ibiliko da herrian zehar. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezenak. Ondoren dantzaldia JOSELU ANANAIAK taldearekin. **12etan** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.

**Larunbata 19:**
**Bakailu jate Eguna**
**10etan** plater tiraketa ehiztarien elkarteak antolatua. **5etan** Pista Libre ikuskizuna: motoak, karts,

UNTXALO
LIBURUDENDA • PAPERTEGIA
Festa on batzuk opa dizkizuegu
GOIZUETA

ZABALETA TABERNA
Ongi pasa herriko festak
Nagusia 42 • ✆ 514063 • GOIZUETA



NORDIA
EKIPAL
Komertziorako mobleen fabrika
*Kalitate eta prezioaren arteko orekarik onena*
Edozein klasetako komertzioa duzula, ekipatzeko behar dituzun moble guzti guztiak guk fabrikatuko dizkizugu
LANTEGIA, ALMAZENA eta ERAKUSKETA:
Bekolanda auzoa • ☎ 514225 • Faxa: 514271 • GOIZUETA

*Abuztuaren 12tik 19ra*

etab... **7etan** toka txapelketa Umore Onak antolatua. **8etan** dantzaldia GOZATEGI taldearekin. Ondoren, Xebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio bertsolarien saioa. **10etan** Umore Onak antolatzen duen bakailu jate herrikoia, aipatutako bi bertsolariekin eta txiste kontatzailearen parte hartzearekin. **12etan** festei bukaera emanez GOZATEGI taldearekin dantzaldia.

**Zezenen aurrean oso ausarta eta trebea omen zen gaztetan Ganyegiko Luixito. Beheko argazkietan ikusten denez, 'Pikadore' eta guzti izaten ziren zezenetan orain dela 31eta 33 urte. Plazako barreretan ere gaur egun baino jende gehiago egoten zen.**

ARGAZKIAK: GAINDEGIko Luisek utziak







UMORE ONA ELKARTEA

*Festa ederrak pasa!!*

GOIZUETA

GURE TXOKO TABERNA

*Festa on batzuk pasa*

Herriko Plaza, Tfnoa: 514097 - GOIZUETA



KATTU

OSTATUA

JATETXEA

MATXINBELTZENEA

LESAKA

ika

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

*Abuztuaren 14tik 20ra*

**Astelehena 14:**
**6etan** txupinazoa. **10etan** XI. mus herrikoia. **11etan** trikitixa.
**Asteartea 15:**
**11etan** Meza Nagusia, udal korporazioa bertan izango delarik. **1etan** pilota partidua: Galarza-Iparragirre, Mendizabal-Mendiolaren kontra. **5etan** zezenak. **7etan** aizkora apostua: Jaunarena-Etxeberria, Senosiain-Patxi Mindegiaren kontra. **8etan** dantzaldia 'J. PURROY' orkestarekin. Gauetik goizaldera dantzaldia.
**Asteazkena 16:**
**Haurren Eguna**
**11etan** jokuak. **1etan** herriko umeen arteko pilota partiduak. **6etan** dantzariak. **7etan** 'Trokolo' antzerki taldea. Arratsaldez eta gauez GAUBELA. **10etan** herri afaria
**Osteguna 17:**
**Jubilatuen Eguna**
**12etan** Meza Nagusia. **1etan** Agirre eta Lizaso bertsolariak. **2etan** herri bazkaria. Arratsaldez bertsolariak. **8etan** dantzaldia TRAKETS taldearekin.
**Ostirala 18:**
**12etan** mus txapelketaren finala. **5etan** plater tiraketa. **8etan** dantzaldia ZIRIKA taldearekin.
**Larunbata 19:**
**11etan** crossa. **7etan** aizkolariak: Arrospide-Olasagasti, Mindegia-Larretxearen kontra. **8etan dantzaldia** HARITZA taldearekin.
**Igandea 20:**
**10etan** III. mendi bizikleta ibilaldia (Antolatzailea: Larrea elkartea). **6etan** errekortadoreak. Ondoren JOSELU ANAIAK taldea.








**Beti bezala, lagun arteko bazkari-afariek, soinulariek eta herri kirolek izango dute beraien tartea Aresoko pestetan.**

ANTZUZELAI S.L.
Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: **63 70 27 LESAKA**

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
*Deitu erreserbak egiteko*
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

BEKO ERROTA
**Lore eta landareak**
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ©ra. IPARRALDETIK 19-34-48-631188

## ETXEBIZITZAK

**DONEZTEBE.** Pisua eta bajera salgai. ☎ 635097 arratsetan.

**BAZTAN.** Borda erosiko nuke. ☎ 306502 (Lurdes).

**Baserria** erosiko nuke, ez du inporta zein egoeratan, lur eremu ttiki bat baldin badu. ☎ 234830 (Iñigo).

**ARANTZA.** Pisua salgai. ☎ 943-510564 (Yolanda) edo ☎ 943-527003 (Mª Luisa) Arratsaldeko 8etatik aitzinera.

**NARBARTE.** Pisu berria amueblatua salgai, garagea negoziagarri. Narbarteko Herriko Ostatuaren parean dago. ☎ 39 30 44.

**IRURITA.** Bi etxebizitzako etxea salgai, 108 m² eta 48 m²ko garagearekin. Estrenatzeko. 12.500.000 pezeta negoziagarriak. ☎ 234830-451518.

**IGANTZI.** Baserria salgai Piedadeko gainaren parean, Lesakarako errepidean. ☎ 450607.

## DENETARIK

**Pisu bat osatzeko** Leioan neska bat behar da. Unibertsitatetik hagitz hurbil dago eta komunikazio ona du. Pisu berri berria. ☎ 634040 (Nerea Altzuri).

**Barañainen** abuztutik aurrera pisu bat osatzeko neskak behar ditugu. 11.000 pta. eta gastoak. ☎ 181580 (eguerdian edo gauetan).

**Barakainen** logela indibidualak osatzeko bi neska ikasle behar dira. ☎ 630556.

**Leitzako** bi neskekin Barañainen pisua konpartitu nahi baduzu deitu 510569 ☎ra (Maider).

**Igantzin** 11.000m²ko lur eremua salgai. Lesakako herritik 2 kilometrotara. ☎ 637453.

**Elizondo** edo inguruetan pisua alokatuko nuke urte osoan zehar. ☎ 91-3555856 (bazkal orduetan edo gauez, Sra. Oianarte).

**Ormigonera**-amasadora ia berria, egoera onean dagoena saldu edo alokatuko nuke. ☎ 393111 (arratsetan).

**Moble zaharrak** erosiko nituzke. Biltzera pasatuko gara eta eskura ordaintzen dugu. Jardin, baratze, baserri eta etxeak ere garbitzen ditugu. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 451518.

**Ibilaldiak** egiten dira zaldi, pottoka eta ponietan. ☎ 637403.

Lau garrafako **esne-tankea** (ardi esnearendako) salgai. Guti ibilia, berri-berria. ☎ 393044.

## AZIENDAK

**Bi asto** ar salgai, 1 eta 4 urtekoak. ☎ 634109 (Arantza).

**Zezen** gazte bat salgai. Hauta ematen dut, urte bat edo bikoa. Akitaniako Blonda arrazakoa. ☎ 599045 (Pedro Jose, 9etatik 1etara eta 2etatik 5etara).

**Ehiza zakurkumeak** salgai. Sabueso arrazakoak, basurde eta erbi ehizarako. ☎ 397031 (Saldias).

**Katakume** bat oparitzen dugu. ☎ 631055.

**Ahare** bat salgai, adarrik gabekoa eta hiru urtekoa. ☎ 610638.

## LANA

**23 urteko neska** herriko bestetarako ostatu eta jatetxetan lan egiteko prest dago. ☎ 630630. (Edurne).

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

**Neska** batek lan eginen luke Baztan-Bidasoaldean. Pertsona arduratsua eta hainbat lanetan esperientziaduna. Astelehenetik ortziralera edo larunbatera. ☎ 592049 (Ana).

## IBILGAILUAK

**Citroen AX**, NA-AC matrikuladuna, salgai. ☎ 510558.

**Citroen BX**, ongi zaindua eta oso merkea salduko nuke. ☎ 943-623186.

**Suzuki Vitara** JLX kotxea salgai. ☎ 510558.

**Niva 1.600** motorra salgai, 10.000 kilometro eginak. ☎ 510558.

**Golf GTI** kotxea, SS-X matrikuladuna salgai. Egoera onean dago eta motorra oso ongi. ☎ 943-620010 (gaueko 9etatik 11etara).

**Lambreta 200** motoa, SS-P matrikuladuna salgai. Egoera onean, garagean egondakoa. ☎ 943-625401 (gaueko 8etatik 11etara).

## AGURRAK

**Berako** Mirariri: zorionak bere 14. urtebetetzeagatik (uztailak 27). Berak dakien partez.

**Igantziko** Izaskun-i: ligatzeko oso estilo txarra daukazu. Lesakako mutil batzuen partez.




**J. RAMOS**

*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*

© 631342 **BERA** • © 637172 **LESAKA**



**BLANCO ANAIAK, S.L.**

MARMOL eta GRANITOAK

*Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria*

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052

IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel.- Fax: 948. 63 10 27

MRW

**HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

**Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena**

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI

Tfnoa eta Faxa: 592179

RESTAURANTE
HILARION

Tfno. eta faxa: (948) 45 00 03 • ELGORRIAGA



- Menu bereziak Ezkontza eta banketetarako.
- Eguneko menua astelehenetik ortziralera 1.000 Pezetetan.
- Asteburuetan menu bereziak 2.500 Pezetetan eta baita karta ere.

**Instalazio berri berriak haize egokituarekin**



- Jangela 1º solairuan 125 lagunendako kapazitatearekin
- Giro goxoko ostatua beheko solairuan.





CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA